

Consejo Escolar
de Navarra



Nafarroako Eskola
Kontseilua

LAN EGITASMOA 2025-2026



Hitzaurrea

2025-2026 ikasturterako lan-planean jorratzen dira araudiak Kontseiluaren funtzionamendurako berezko gisa esleitzen dituen zereginak.

Hala, haren helburuak dira hezkuntza-sektoreen parte-hartzea sustatzea, ezarritako kontsulta-funtzioei erantzutea eta gure hezkuntza-sistema ezagutaraztea, besteak beste, interes bereziko proiektuak nabarmentzeko eta esperientziak trukatzeko sare formalak eta informalak sortzea bultzatzeko.

Hori guztia, kontuan hartuta gizarte- eta kultura-eragile garrantzitsuekin lankidetzan ari-tu behar dugula hezkuntzako erantzukizunak ditugun administrazioak eta erakundeak, Kontseilua bera eta hezkuntza-komunitateak.

Zeregin horiek garatzeko, Nafarroako Eskola Kontseiluak ahalik eta hurbilen egon behar du hezkuntza-eremuko protagonista nabarmenengandik: ikasleak, familiak eta sistemako profesionalak.

Hezkuntza-munduaren, Kontseiluko kideen eta langileen arteko lankidetzak funtsezkoa izanen da azken balantze positiboa egin ahal izateko. Desio horrek animatzen gaitu, eta guri dagokigu erantzukizuna.

1. Unibertsitateaz kanpoko ikasketak programatzerakoan hainbat sektorek parte har dezaten sustatzea.

- 1.1. Irizpenak ematea, organo honi kontsulta egitea nahitaezkoa duten Hezkuntza Departamentuaren arau-proiektuen edo arauzkoak ez diren proiektuen gainean, baita unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzaren programazio orokorrarekin lotutako beste-en gainean ere.
- 1.2. Kontseiluaren egungo osaera eta haren funtzionatzeko araudia eguneratzeko beharrezkoak diren ekimenak sustatzea.
- 1.3. Kontseiluaren ohiko funtzionamendua hobetzeko proposamenak egitea.
 - Webgune bizia
 - NHSTaren datuak zuzenean biltzea
 - HEZKUNTZAKO ANALISIAK (datuen analisia, balorazioak eta hobekuntza-proposamenak)
 - Ezagutzaren jarraitutasuna Nafarroako Eskola Kontseiluan
 - EDUCAko erlaitza, ikastetxeekin zuzeneko komunikazioa eta komunikazio arina lortzeko.
- 1.4. Lan-batzordeak koordinatzea.
 - 1. batzordea. Irizpenak
 - 2. batzordea. Memoria / NHSTaren 2. eta 3. kapituluak
 - 3. batzordea. NHSTaren 4. eta 5. kapituluak, NHSTaren balizko erreformak
 - 4. batzordea. Txostenak, azterlanak, jardunaldiak, erakundeen arteko harremanak eta programa eleaniztunak

2. Nafarroako hezkuntza-sistema ezagutzen eta hobetzen laguntzea, ikerlanak eginez.

- 2.1. 2025-2026 ikasturteko Nafarroako hezkuntza-sistemari buruzko txostena (NHSTa) egitea.
- 2.2. Nafarroako hezkuntza-sistemari buruzko txostena ebaluatzea eta haren funtzionamendua eta komunikazioa hobetzeko proposamenak egitea.
- 2.3. 2025-2026 ikasturteko Nafarroako hezkuntza-sistemari buruzko txostena (NHST) prestatzea.
- 2.4. Nafarroako hezkuntza-sistemaren adierazleei buruzko txostena eguneratzea. Digitalizazioa eta zuzeneko datuak.
- 2.5. Nafarroako hezkuntza-sistemarako interesa duten gaiak aztertzea, esku hartzen duten eragileekin eta adituekin batera:
 - Ikaskuntza-hizkuntza ez dakiten ikasle migratzaileak sisteman sartzea.
 - Kultura-aniztasuna eta bizikidetzatza, gako kulturalak.
 - Ikaskuntzaren diseinu unibertsala (IDU) eta aniztasuna, ikasteko zailtasunak dituzten ikasleei arreta ematea.
 - Ongizate emozionala ikastetxeetan.

- LH DUALA.

3. Hezkuntzako gai interesgarrien gaineko trukea eta hedapena bultzatzea Nafarroako hezkuntza-komunitatearekin batera.

3.1. Kontseiluaren egoitza digitalaren jardura dinamizatzea. Honako atal hauei arreta berezia ematea:

- Kontseiluaren jarduerak
- Hezkuntzaren munduko intereseko proiektuak
- Kontseiluaren informazioko fitxategi dokumental publikoak
- Interes orokorreko azterketa-dokumentuak
- Hezkuntzaren aldeko itun soziala.
- Erregistratutako pertsonendako atala

3.2. Honako jardunaldi hauek antolatzea:

- Nafarroako Eskola Kontseiluaren jardunaldiak: "Ikaskuntza-hizkuntza ez daki-ten ikasle migratzaileen inklusioa".

3.3. IDEA aldizkari digitala finkatzea. Honako hauetarako:

- 2024-2025 ikasturteko jardunaldietarako gaia argitaratzea: Hezkuntza emozionala eta ohitura osasungarriak. Bullyinga gainditzeko prebentzioa eta sentsibilizazioa
- 2025-2026 ikasturteko jardunaldiak prestatzea: Ikaskuntza-hizkuntza ez daki-ten ikasle migratzaileen inklusioa

3.4. Bilduman ezarritako formatuarekin gai monografikoei buruzko paperezko argitalpenak editatzea.

- 2024-2025 ikasturteko jardunaldietarako gaia argitaratzea: Hezkuntza emozionala eta ohitura osasungarriak. Bullyinga gainditzeko prebentzioa eta sentsibilizazioa
- 2025-2026 ikasturteko jardunaldiak prestatzea: Ikaskuntza-hizkuntza ez daki-ten ikasle migratzaileen inklusioa

3.5. Nafarroako Eskola Kontseiluak egindako txostenak eta beste batzuk zabaltzea, hala nola:

- Nafarroako hezkuntza-sistemari buruzko txostena, 2024-2025
- Nafarroako hezkuntza-sistemaren adierazleei buruzko txostena. Digitalizazioa eta zuzeneko datuak.
- Nafarroako Eskola Kontseiluaren memoria, 2024-2025 ikasturtea
- Estatuko eta autonomia-erkidegoetako hezkuntza-sistemaren txostenak.
- Estatuko eta erkidegoetako kontseiluen arteko topaketak.
- Nazioarteko erakundeek txosten interesgarriak.

3.6. Dokumentu-artxiboa eguneratzea eta kontsulta erraztea hala eskatzen dutenentzat.

4. Nafarroako Eskola Kontseiluak erakundeetan duen presentzia gizartean bultzatzea, eta ikastetxeekin eta hezkuntzaren esparruko beste erakundeekin harremana sustatzea.

- 4.1. Presentzia aktiboa eta erregularra izatea komunikabideetan.
- 4.2. Nafarroako Eskola Kontseiluaren jarduerak editatzea eta atari digitalaren bidez hedatzea.
- 4.3. Interes orokorreko hezkuntzako egoerak ikusgarri egitea, eskura dauden baliabideak erabilia.
- 4.4. Hezkuntzaren esparruko instituzioek eta erakundeek antolatutako ekitaldi eta jardueretan parte hartzea.
- 4.5. Beste instituzio batzuekin egindako hitzarmenak berritzea eta betetzea, eta, ahal bada, lankidetzaren formula gehiago eta handiagoak egitea Kontseiluaren proiektu berriak aintzat hartuta.

5. Autonomia-erkidegoetako eta estatuko eskola-kontseiluekin elkar-lanean aritzea hezkuntza-sistemaren kalitatea hobetzeko.

- 5.1. Estatuko Eskola Kontseiluaren osoko bilkuretan eta Autonomia Erkidegoen Parte-hartze Batzordearen saioetan parte hartzea.
- 5.2. Estatuko eta erkidegoetako eskola-kontseiluen topaketetan parte hartzea.
- 5.3. Informazioa trukitzea eta lankidetzan aritzea estatuko eta gainerako autonomia-erkidegoetako eskola-kontseiluekin.

6. Eskola Kontseiluaren baliabideak kudeatzea, haren eginkizunak modu egokian garatzeko eta haren kudeaketaz kontu emateko.

- 6.1. Kontseiluaren aurrekontua kudeatzea, gastua errentagarri egitea eta gastuen berri ematea Batzorde Iraunkorrari eta osoko bilkurari, sei hilean behin.
- 6.2. Kontseilukideen prestakuntza sustatzea, eginkizunak hobeki bete ditzaten.